



FOTO-GAR



Txintxo-txintxo egingo dute danborrero gazteek auzoetatik Lege Zaharren enparantza arteko bidea.

500 danbor txiki

Eskola umeek zabalduko dute jaia suziria lehertu orduko

Zarauztar txiki, gazte eta helduek, guztiek dituzte gustuko sanpelaioak, udaren etorreraren berri-emaile zuzena izaten baita batzuentzat, eta hainbat astetan ikasitakoa ezagun guztien aurrean erakusteko eguna besteentzat; haurrentzat, alegia.

500 haur prestatu dira aurten ere txintxo-txintxo 3 astetan zehar, jaiei behar bezalako hasiera emateko. Izan ere, haurrek izaten dute urtero jaiei hasiera emateko pribilegioa.

Gaur, eguerdiko 12:00-etan, udaletxeko balkoitik txupinazoa eta suziriak botako dituzte eta, bidenabar, alkateak Haurren Agerraldi-ko danbor nagusiari makila emango dio. Danbor nagusiak erantzukizun handia hartzen du bere gain, udaletxeko plazan danbor jole guztien gidari bakarra bera izaten baita, baina oso ongi prestatuak izaten direnez, behar bezala betetzen dute euren lana, eta, horri esker, erakustaldia ikustera joaten diren guztiek gogotik gozaten dituzte haien lanarekin.

Bada urte mordoak bat Joxe Antonio Azpeitiak, Bittor Ullarrak eta Iñaki Astazubik haurren danbor erakustaldiari ekin ziotela;

Danborrada eskolen arteko harremanak sendotzeko asmoz sortu zuten, ikastetxe guztietako haurrek parte hartzen baitute

lehenbiziko aldia 1978an izan zen.

Haurren danborrada eskolen arteko harremanak sendotzeko asmoz sortu zuten, Zarauzko ikastetxe guztietako haurrek baitute bertan parte hartzeko aukera: Ikastolakoek, Orokieta Herri Eskolakoek, La Sallegoek eta Maria Inmaculada-Antoniakoek, hain zuzen. Antolatzailen iritziz, oso aberasgarria da eskola guztietako haurrak elkartu eta guztiekin batera lan egitea, nahiz eta eskola berekoak elkarrekin biltzeko joera nabarmena izan.

Auzo bakoitzari kolore bat

19:00etan emango zaio hasiera, urtero bezala, aurten-go haurren 22. alardeari.

Zarauzko lau auzotatik irten-go dira danbor joleak eta herrian zehar herritarren belarriak gozaten ibili ondoren, Lege Zaharren enparantzaz egingo dute topo lau taldeek.

Auzo bakoitzari kolore bat dagokio, urtero aldatuz joan ohi dena, eta, era berean, kolore bakoitzari antzinako ogibide jakin bat ere badagokio. Aurten koloreen banaketak honela geratu da: Vista Alegre auzoko danbor joleak gorri jantziko dira, eta desfilatzen arotzak eta plantxadorak irtengo dira; Inurritzakoak berdez jantziko dira, eta baserritar eta nekazariz jantzitako haurrak izango dituzte lagun; Itsas-mendikoei, berriz, kolore horia egokitu zaie, eta arrantzalez eta arrain-saltzailez hornituko dira; eta, azkenik, azken portutik urdinez jantzita abiatuko dira, eta inude eta bañeruak izango dituzte lagun.

Esan bezala, 500 haur inguru izango dira aurten ere ekitaldi honetan parte hartuko dutenak, eta guztiek batera Imanol Urbietak konposatutako lau pieza —Zirrin-zarran, Txerri kale giroan, O Zarautz maite! eta Aurrakari— eta Goikoetxeak konposatutako Diana bals joko dituzte Lege Zaharren Enparantzaz.



LYKAS ARDOTEIA

Ipar Kalea, 3
Tf.: 943 13 14 73

20800 ZARAUTZ

Hegoalde, 12
Tf.: 943 13 22 53

Bar Isabel
1.959an sortua

Bizkaia kalea, 24
20800 ZARAUTZ - Tel.: 943 83 22 64



EGUZKI
KAFETEGIA

Goizeko 7.30etatik irekita

Pintxo hotz eta beroak

Ebaki berezia

Nafarroa kalea, 8
943 83 41 16 tel.
ZARAUTZ



JATETXEA

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!!**

Talai Mendi auzoa

Tel.: 943 83 00 42 - 943 83 37 56
ZARAUTZ

Orbegozo TABERNA

Berezitasunak: Haragi erreka parrilan

Saiheskiak, txuleta, txitxarroak eta mota askotako pintxoak

Indamendi kalea, 6 • 943 83 40 74 • 20800 ZARAUTZ



MONDRA

Kafe-etxea eta Gozotegia

Mitxelena kalea, 27 - 943 83 45 61

Okindegia

Mitxelena kalea, 25 - 943 13 45 29

... ZARAUTZ ...

Zuentzat eta guztiontzat...

Taberna

XIMUT

ZARAUTZ

arranoak!

ZARAUTZ



KULTURGUMEA
Kantaldiak
Hitzaldiak
Antzerkia
Erakusketak